

LDAP pasahitza berehala aldatu beharra

Sarrera

Euskal Herriko Unibertsitateari eta gainerako erakunde publikoei jakinarazi zaie arriskua dutela zibereraso bat izateko berehala. CCN-CERT zentroak jakinarazi digu, baita ere, UPV/EHUko erabiltzaileen kredentzialak eta pasahitzak saldu direla, urrunetik sartzeko barruko zerbitzuetara VPN erabilita.

Hori dela eta, neurriak hartu behar dira berehala unibertsitatearen informazio sistemak babesteko. Lehen neurria da erakundearen kredentzialetako pasahitza aldatzea (LDAP kontua deitzen duguna), nahiz eta pasahitz hori orain dela gutxi aldatutakoa izan.

Nola aldatu pasahitza


Erakundearen erabiltzaile kredentzialak dituzten pertsona guztiek aldatu behar dute pasahitza, 2022ko martxoaren 3a eta 8a bitartean (egun biak barne).

Pasahitza Bilatu aplikazioan aldatuko da, eta horretarako urrats hauek egin behar dira:

- Sartu Bilatu aplikazioan nabigatzaile baten bidez (<https://www.ehu.eus/bilatu>).
- Sakatu "Aldatu", ezkerraldean agertzen den "Pasahitza" aukeraren barruan.

Pasahitza berreskuratu
Berreskuratu
Mugikorraren bidez berreskuratu
Kanpoan dauden ikasleak
Pasahitzen administratzaileak
Ikustarazi
Login
Login
Pasahitza
Aldatu
Nor naiz ni
Bilaketa aurreratua
Bilaketa
Administrazioa
Administratzailea

Idatzi pasahitz berria. Pasahitz horrek bete beharko ditu orrian bertan agertzen diren gutxieneko segurtasun irizpideak. Ez erabili aurretiaz LDAP konturako erabilitako pasahitzik.



- Gogoan izan une horretatik aurrera erakundearen aplikazioek pasahitz berria eskatuko dutela. Besteak beste, honako hauek:
 - Norberaren ordenagailura sartzeko LDAP kredentzialak (PC, Mac, Linux...)
 - WiFi eduroam (onena berriro instalatzea: <https://www.geteduroam.app/>)
 - VPN
 - Posta elektronikoa (bai web bidez sartuta bai aplikaziotik sartuta)
 - Egela, Egelapi
 - Eta abar.

Pasahitza ez aldatzea epearen barruan

Pasahitza epearen barruan aldatzen ez duten kontu guztiak blokeatu egingo dira epea amaitu ondoren. Blokeatutako kontuak berriro aktibatzeke pasahitza aldatu beharko da Bilatu aplikazioan, gorago azaldu den moduan.

Pasahitza aldatzeko arazorik izanez gero, ahalegindu pasahitza berreskuratzen Bilatu aplikazioan edo, ezinezkoa bada, deitu Erabiltzaileentzako Zerbitzura.

Mila esker zure laguntzagatik.